

IZENBURUA

GAIZKIÑE

EZIZENA:

AMETS

GAIZKIÑE

Aspaldian ez dela gertatu zen hemen kontatuko dizuet ixtorio hau. Jarraitu aitzin, jakin ezazue gaur Baionako apartamendu batean bizi arren, Arranomendi eta Hartzamendi arteko ibarrean dagoen etxe zahar batean dudala sorlekua, Iturrarteko errekaaren inguruan, gaztainondo, haritz eta pagoen itzalean.

Badira urte batzuk senarra hil zitzaidan eta gure alaba tematsu aritu zen ni berarekin bizitzera etor nendin. Noiztenka nire sorlekuko etxera bisita egiten dugu alaba eta biok, umeak bere aitarekin geldituz, suhiak ez baitu nahi gurekin jitea, kaletar hutsa da.

Baionako apartamendua moderno horietariko bat da: telebista handi bat saloian, beste bat haurren eta burasoen logelan, ordenagailuak, sukalde elektrikoa, telefonoak (etxekoa eta sakelakoak), mikro-uhin labea eta abar luze bat. Modernitate guziak dituzte, hobe bizitzeko omen!

Hala ere, egun guztiz presaturik bizi dira: goizean korrika jaiki eta gosalduta umeak ikastolara eraman eta lanera joateko. Eguerdian umeek kantinan eta burasoek hor nonbaiten bazkaldu, iluntzean, denak akituak eta askotan urdurik eta jenio txarrean, presaka ere gauzak egin, fite afaldu eta telebista ikusi (horretarako beti dute denbora).

Alabak hobe nengokeela esaten bazidan arren, beti bakarrik sentitzen naiz etxean: bakarrik gosalduta eta bazkaldu behar dut. Arratsetan ez dugu elkar mintzatzen, beti dituzte deiak eta mezuak eta zer dakit nik egiteko! Bizitza hobeagoa ote? Ez niretzat!

Igande eta besta egunak ere korrika eta lasterka igaro behar ditugu, oportetan gauza bera eta paisaiekin goxatu beharrean nahiago dute sakelako telefonoekin argazkiak eta bideoak egin.

Umeekin geratu nintzen arratsalde euritsu batean, telebista itzali eta nire haurtzaroa nolakoa zen kontatu nien: gu, umeok, etxeko lanetan laguntzen genuen, kanpoan jostatzen ginen, etxeko denok elkarrekin bazkaltzen genuen eta gauetan inguruko auzoekin artoa edota babak aletu edo lihoa garbitu bitartean ixtorioak entzuten genituen sutondoan, Anderea, Basajaun, Tartalo, Lamiak... gure bizitzaren parte ziren ere. Zinez garai ederra zen!

Umeek hasieran aurpegi aspertuak jarri zituzten, gero, emeki emeki, interesa piztu zitzaienten eta galderak egiten hasi ziren, batez ere gure mitologiari buruz. Izan ere, ikastolan irakurriak zituzten hainbat ixtorio baina ez zituztela sinesten esaten zidaten. Nik bistan denez gure esatera zaharrarekin erantzun nien: ***direnik ez da sinistu behar; ez direla ez da esan behar***. Hala ere irri barrezka hasi ziren biak, "*amatxi! ez esan halakorik, badakizu aitak ez dituela istorio horiek maite!*"

Nire suhiak ez zituen batere maite gure aspaldiko ixtorioak, tontakeriak zerizkion, harendako posible zen aingeru batek hegan egiteak, ez ordea lamina batek, harendako posible zen haien Birjina agertu eta desagertzea, ez ordea gure Anderea, posible ziren dragoi eta santuen arteko borrokak, ez ordea gure herensugeen ixtorioak eta abar. Horregatik gure alabak ez zien inoiz ezer kontatzen umei. Ala berak ere aiantzi ote?

Lehen esan bezala kaletar hutsa da nire suhia. Oraindik ere harritzen nau gure alaba harekin hasi zenean oroitzeak eta gero harekin bizitzera joateak. Gure alaba! baserriko bizitza eta giroa maite zituena!

Arrast hartan, burasoak etxera sartu orduko, umeak gure etxe zaharrera joateko guztiz gogotsu ziren eta hori eskatu zieten otoi eta arren! Aitak ezetz esan bazien ere, badakizue nolakoak diren haurrak, ekin eta ekin aritu ziren baietza lortu arte!

Ni ere joateko irrikaz nintzen, baina hau da hau patua, joateko bezperan gastroak jota nintzen eta Baionan gelditu behar izan nuen.

Abuztu amaierako larunbat berotsu bat zen gure etxe zaharra bisitatzera abiatu zirenean, umeak pozez gainezka, artean ez baitzuten ezagutzen. Haien aita bueltatzeko presatua. Goizean atera ziren Baionatik, fite gosalduta eta segituan.

Eta orain alabari emango diot hitza:

"Eguerdi baino lehen heldu ginen. Sapa ari zuen eta izerditan ginen denok. Hala ere izugarri kontent eta asaldatuak ziren haurrak. Etxe inguruan berriz ere sasiak eta laharrak ziren nagusi, udaberrian ez ginen apur bat garbitzera etorri eta. Haurrek masustak biltzeari ekin zioten. Senarra eta biok barrura sartu eta hautsa kendu genuen bazkaria prestatzeko: entsalada eder bat eta omeletak, desertarako pastiza, nire amak egina. Kanpoan, intxaurrondo baten itzalean dagoen harrizko mahaian jan genuen, lasai eta patxadaz aspaldiko partez!!

Ondoren etxea miatzera sartu ziren umeak: gela nagusiaren horma baten erdian etxeko beheko sua dago bere kebidetarekin. Bertatik zintzilika jaisten den burdinazko laratzaren gakoan eltze bat eman eta janaria egosten genuela azaldu nienean harrituak ziren biak eta joan aitzin guk ere egin behar genuela zioten. Beste pareta batean egurrezko arasa bat dago sukaldeko gauzak paratzeko: egun erreximenta gordetzeko kristalezko pote batzuk, buztinezko pitxer bat, zombait baso eta aspaldiko baxera baten hondarrak besterik ez. Arasa ondoan zurezko kutxa bat datza eta barruan gauza zahar batzuk: gure aitak zerabilen labana; kandelak eta argimutil batzuk; oihal zaharrak; mantal bat...

Ondoren gainekeo estera igo ziren umeak, logelak ikustera. Bi logela daude eta bakoitzak bi ohe ditu: oheak egurrezko eta zaharrak dira, somierrak burdinazko eta altzairuzkoak, matalazak lastozkoak. Gogorak iruditu zitzaizkien haurrei gainean jarri eta *kirrinka-karranka*, gora eta beheara aritu zirela. Armairu handi bat ere dago logela bakoitzean, egurrezkoak biak, bertan mihiseak, edredoi eta lumaz beteriko burukoak daude. Ene burasoen logela izan zenekoan amaren arropa batzuk ere gelditzen dira.

Gu bertan bizi ginela erridauak jartzen genituen leihotetan, baina ez gaur egun, hautsa metatzeko besterik ez zuten balioko eta! Gurutze bat ere badago gela bakoitzean, amak ez ditu kendu nahi eta!

Etxeak badu ere abeltegi bat, aspaldian kabala txikia sartzeko, egun saguek, lanabes zahar batzuek eta gauetan usu entzuten den hontzak ere bertan dute aterpea.

Eta etxe osoan barreiatuak oroitzapenak, nire oroitzapenak, baina hauek nik bakarrik ikusten ahal nituen.

Eguna aurrera zihoan, sapa gero eta astunagoa zen eta zerua hodei ilunez hasia zen betetzen, ortzantza zebilen airean. Iluntzean lehertu zen. *Zzzist eta zzzast!* lehenengo tximistekin argirik gabe gelditu ginen (argindarraren instalazioa zaharra zen eta ez dugu inoiz berri). Eskerrak kandelak eta argimutilak zeudela!

Afaria etxe barruan egin genuen beraz, kandelen argipean, hala ere haurrak pozik zeuden. Senarra ez, mugikor estaldurarik gabe baikin. Afaldu ostean atepetik ortzantzari so eta adi izan ginen: *zirt zart!* batzuetan, *sist sats!* bestetan, zuhaitzen abarren dantzak haizearen menea; *ttak, ttak, ttak!* arin batez batzuetan, *plisti-plasta, plisti-plasta!* azkarra bestetan euri ttantten jotzea; *kliska eta klaska!* tximistek basoa argitzen eta iluntzen, mendien profila zuri eta beltzez marrazten; *burrin eta burrunba!* trumoiaren danbor hotsak; *uju, ujuju!* hontzaren uluak; *kirrisk eta klik!*, *karrask eta klak!* ate-leihoen kirrinka...

Oheratzerakoan ixtorio bat eskatu zidaten haurrek, baina nik akitua nintzela esan nien. Egia ordea, nik ez nituela oroitzen zen. Ohe berean sartu ziren biak, ortzantzaren eta etxe zaharraren zaraten beldur baitziren. Kostata baina lokartu ziren.

Biharamunean eguzkia nagusi, sapa ari zuen berriz ere, ortzantzak ez zuen freskotasuna ekarri. Ezta argindarririk ere.

Gosaria prestatu eta umeak agertzen ez zirenez haien bila igo nintzen. Ohean ziren biak baina aurpegi txarra zuten, hits eta zurbilak, ia ahotsik gabe negar zotinka ari ziren. Kopetan eskua jarri eta berotan ziren biak, sukarrak harturik.

Senarrak berehala hartu zuen erabakia: handik lehenbailehen alde egitea, bistan da. Beraz gauzak bildu eta Baionara itzuli ginen.

Ama guztiz sendatuta zegoen, indartsu ohi bezala. Gertaturikoa kontatu nionean ez zuen ezer esan, hausnarkari burua esker eskuin mugitu baino ez."

Eta hemen, nik jarraituko dut ixtorioa berriz ere:

Alaba eta familia itzuli zirenerako forman nintzen, hala ere ze ustekabea! horren goiz sartzen zirela ikusirik, berehalaxe sumatu nuen zerbait gertatu zela: umeak ziren, itxura txarra zuten biek, akitu akituak, hits hitsak. Ohera sartu zituen alabak eta siropa bat eman zien sukarra jaisteko.

Biharamunean berdin jarraitzen zuten biek eta sendagilea deitu genuen. Sendagileak ez zuen garrantzirik eman, siropa hartzen jarraitzeko eta lasaian egoteko ohean.

Baina sartu zirela lau egun eta umeak beti eri, gero eta akituagoak, ozta ozta salda bat hartzen zutela jateko eta segituan goitika bota, zerbait egin behar nuela konturatu nintzen.

Alabari suhia etorri bezain laster gure etxe zaharrera joango ginela agindu nion. Harriturik begiratu zidan, baina badaki zerbait darabildanean buruan hobe dela egitea.

Suhia sartu eta etxe zaharrera abiatu ginen gu biok, esku-argiak harturik. Ilun zen iritsi ginenean, beraz linternak pizturik haurren ganbarara igo nintzen lasterka, alaba atzetik zetorkidala. Burukoari so egin nion: burukoa oilar baten buruaren itxura zuen!

- So egizu! Ulertzen duzu zer gertatu den? –galdetu nion alabari buruko barnean irudikatzen zen oilar burua ontsa argitzen.
- Ez ama, ez dakit zer esan nahi duzun!
- Ez dituzu oroitzen txikitan kontaktzen nizkizun ixtorioak? Ez duzu *gaizkile* gogoan? –Ez, ez zuen gogoan. Gaizkile sartu zen ortzantzaren gauean, azaldu nion, berak gaixotu ditu haurrak eta inongo medikurik ezin izango ditu sendatu. Gauza bakarra egiten ahal dugu.

Eta denbora galdu gabe burukoa hartu, beheko sua piztu eta bertan erre nuen.

Ondoren Baionara itzuli ginen. Oso berandu izan arren, atea ireki aitzin umeen irriak eta algarak entzun genituen. Guztiz sendatuak ziren berriz ere, suhiak ezin sinetsirik zegoen!

Biharamunetik nire haurtzaroko ixtorioak kontaktzen hasi nintzaien (baita suhiari ere).

" Dierenik ez da sinistu behar; ez direla ez da esan behar "